

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Itsaso zabalak



Igor Estankona



Poemak

JORGE DE SENA

Itzulpena: Rikardo Arregi
Susa, 2015

Beñat Sarasolak darabil hitza kaieraren hitzaurrean: indarra. Jorge de Sena (Lisboa 1919–Santa Barbara, AEB 1978) poesia-modu konformagaitzaren adibidea da, eta poesia izan zuen izpiritu horren lubaki. Nobela bi utzi zituen portugesezko literaturan funtsezkoak (*Sinais de fogo* eta *O físico prodigioso*) eta kritika eta azterlan hainbat. Baina bera lirikan zen maisu, hitzaren bila beti: “Ene lurra ez da esanezina./ Esanezina ene lurrean bizitza da./ Esanezina esan ezin daitekeena da”.

Rikardo Arregik itzulpen honen bidez gerturatu gaitu beraz hizkuntzaren mugak aintzat hartu barik beti esanahi berriak bilatzen zituen poetaren obrara. Portugalen hasi, Brasilen jarraitu eta AEBetan buka, de Senaren bidea izan da hermetismotik surrealismora eta handik poesia zuzen eta efektibora. Beraz neoerrealistekin ez zuen bat egin, eta pentsamendu aldetik ere ez zen garbiro lerratu, eta “dena modu guztietan esanda” utzi nahi izan zuenak modu infinituekin egin zuen talka halabeharrez: “Hitz egidazue poesiaren misterioez,/ hizkuntza baten, arraza baten tradizioez,/ herri baten edo hizkuntza baten esperientziarekin/ baino esaten ez den hartaz. Astakirtenak”.

Kritika garratza egin zien poetak idazletzari, irakasletzari, bere garaia, oraingo munduari. Jakintsua, ikasia eta arean buruiritzia, beharbada kategorikoki hitz egiteko zeukan ohitura horrek bihurtzen du bere lirika hain eder, hain erasokor eta konkretu: “Kretan, Minotauroarekin,/ poemarik gabe eta bizitzarik gabe,/ aberririk gabe eta espiriturik gabe,/ ezer gabe, inor gabe,/ hatz zikina izan ezik,/ nire kafea bakez hartuko dut”.

Kaiera hau irakurriz otu zait egon behar duela urpean Susakoek azaleratu dutena baino askoz gehiago, askoz modu gehiagotara esana. Rimbaudetik Quevedora, elipsitik hitz gordinera, Jorge de Senak ibili zituen itsasoak –gaztetan Cabo Verde, Angola, Sao Tomé egin zituen *Sagres* ontzi-eskolan– infinituak izan bide ziren, bere bizitzak legetxe.

Saldukeriarik gabeko poeta totala izan zen. Itzulpen hauetan ere pieza batzuk beste batzuk baino borobilagoak izan daitezke, baina denek dute ipar halako exigentzia bat idazten denarekiko. Exigentzia hori da izan dadila poema behintzat onesta, izan dadila behintzat, estetikoki, ideologikoki, historikoki, askatasunetik idatzia. ■

